BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN ETA LURRALDE ANTOLAMENDU SAILA

278

EBAZPENA, 2008ko apirilaren 30ekoa, Ingurumeneko sailburuordearena, altzairu moldekatuzko piezak galdatzeko eta mekanizatzeko ingurumeneko baimen bateratua ematen duena, Vitoria-Gasteizko udalerrian (Araba) eta Novacero, S.A.L. enpresak sustatua.

AURREKARIAK

2006ko abenduaren 28an, Novacero, S.A.L. enpresak Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailari ingurumeneko baimen bateratua ematea eskatu zion, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legeak xedatutakoaren arabera, Vitoria-Gasteizko udalerrian (Araba) altzairu moldekatuzko piezak galdatzeko eta mekanizatzeko jarduerarako. Eskaerarekin batera, proiektuak Vitoria-Gasteizko hirigintza-plangintzarekin duen bateragarritasunari buruzko 2006ko azaroaren 9ko udal-txostena bidali zuen sustatzaileak, eta ondorengo agiri teknikoak:

– Ingurumeneko baimen bateratua eskatzeko proiektu teknikoa eta beste agiri gehigarri batzuk (2006ko abendua).

– Laburpen ez-teknikoa (2006ko abendua).

Erreferentziako baimena eskatzeko unean, Novacero, S.A.L. enpresak, besteak beste, jarduerarako 2006ko abuztuaren 2ko baimena zuen. Baimen hori altzairuzko piezak galdatzeko eta mekanizatzeko eman zen, bertan jasotako neurri zuzentzaileak betetzeko baldintzapean. Halaber, enpresa sustatzaileak industria-hondakin geldoen ekoizleen erregistroko inskripzioa zuen, 2005eko uztailaren 28koa, hondakinen arloan indarrean dagoen araudian xedatutakoari jarraituz.

2007ko urtarrilaren 30ean, Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzak prozeduran parte hartzen duten hainbat organori txostenak eskatu zizkion, Ingurumen Organoak proiektua jendaurrean jartzeko izapidea agindu zezan. Zehazki, Vitoria-Gasteizko Udalari eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari egin zitzaien kontsulta.

Ingurumen Organoak agiri osagarriak eskatu zizkion sustatzaileari 2007ko apirilaren 4an; espedientea 2007ko urriaren 30ean osatu zen.

Aurkeztutako agiriak nahikoa zirela egiaztatu ondoren, Ingurumen sailburuordeak 2007ko azaroaren 14an emandako ebazpenaren bidez, jendaurrean jarri zen 30 egun balioduneko epean, Novacero, S.A.L. enpresak sustatutako proiektua, egoki iritzitako alegazioak aurkezteko. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Arabako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, bietan 2007ko abenduaren 3an. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko hiru egunkaritan argitaratu zen 2007ko abenduaren 2an, eta ondoko auzokide bakoitzari jakinarazpena bidali zitzaion.

Jendaurrean jartzeko izapidetze-epea bete ondoren, isuri atmosferikoekin lotuta alegazio bat aurkeztu dela egiaztatu da.

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 17. eta 18. artikuluetan xedatutakoa betez, 2008ko urtarrilaren 14an Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzak txostenak eskatu zizkien Vitoria-Gasteizko Udalari eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari, espedientean ageri den emaitza jasoz.

2008ko apirilaren 15ean, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 20. artikuluan xedatutakoa betez, espediente osoa Novacero, S.A.L. enpresaren esku utzi zen, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak egindako ebazpen-proposamena gehituta.

2008ko apirilaren 25ean sustatzailearen jakinarazpena jaso zen. Jakinarazpen horretan hainbat ohar egiten ziren Ingurumeneko Baimen Bateratuaren ebazpen-proposamenari lotuta.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 1. artikuluan xedatutakoaren arabera, lege horren xedea da atmosferaren, uraren eta lurzoruaren kutsadura saihestea edo, hori ezinezkoa denean, kutsadura hori gutxitu eta kontrolatzea; eta hori lortzeko, ingurumen osoaren babes-maila altua helburutzat harturik, kutsadura prebenitu eta kontrolatzeko sistema integratu bat ezartzea.

Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea garatu eta burutzeko Erregelamendua onartzen duen apirilaren 20ko 509/2007 Errege Dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoarekin bat eginez, baimen honetan sartzen dira ekoizpen-elementu eta -lerro guztiak; 16/2002 Legearen 1. eranskinean aipatzen ez diren arren, lege hori aplikatu beharreko esparruko jardueren instalazioetan gauzatzen direnak eta jarduera horrekin zerikusia dutenak.

16/2002 Legearen 9. artikuluak ezartzen duena betez, ingurumeneko baimen bateratua behar da 1. eranskinean aipatzen diren jardueraren bat garatzen duten instalazioak eraiki, muntatu, ustiatu, lekuz aldatu nahiz funtsezko beste aldaketaren bat egiteko. 11. artikuluaren arabera, baimen honen oinarrizko helburua baldintzak ezartzea da, araua aplikatzeko den instalazio guztietan betetzen dela bermatzeko; horretarako, baimena ematen parte hartuko duten Herri Administrazio guztien artean koordinatuko den prozedura bat erabili nahi da, izapideak erraztu eta partikularrek ordaindu beharreko kargak gutxitzearren. Era berean, indarrean den legerian aurreikusitako ingurumen-baimen guztiak administrazio-egintza bakar batean bildu nahi dira. Novacero, S.A.L. enpresaren kasuan, baimen hauek guztiak behar ditu: hondakin arriskutsu eta ez-arriskutsuak sortzeko baimena; kolektorera isurketak egiteko baimena; eta ingurumen-izaerako beste zehaztapenen artean, atmosferaren kutsadurari dagozkion baimenak eta lurzoruaren kutsadura prebenitu eta hari aurre hartzeari dagozkionak. Era berean, eskumeneko beste administrazio eta organismo batzuk txostenak igorriz egindako parte-hartzea egiaztatu da espedientean.

16/2002 Legearen 29. artikuluan xedatutakoaren arabera, ingurumeneko baimen bateratua emateko prozedurak ordezten du jarduera sailkatuetarako udal-lizentziaren prozedura, azaroaren 30eko 2414/1961 Dekretuan, Jarduera Gogaikarri, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuen Erregelamenduan aurreikusten zena; ez du ordezkatzen, ordea, udal-agintaritzak emango duen behin betiko ebazpena. Ondorio horietarako, ingurumeneko baimen bateratua udal-agintaritzat loteslea izango da baldin eta lizentzia ukatzeko bada edota neurri zuzentzaileak ezartzeko; baita goiko arauaren 22. artikuluan jasotako ingurumen-alderdiei buruzko guztian ere. 29. artikulu horretan aipatzen denez, goiko guztiak ez ditu kaltetuko autonomia-erkidego bakoitzean jarduera sailkatuei aplikatzekoak diren gainerako arauak. Transkribatutako aginduak aplikatuz, Novacero, S.A.L. enpresari dagokion ingurumeneko baimen bateratuaren prozedurak barne hartu ditu Euskal Herriko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrean aurreikusitako izapideak; horiez gain, espedientean sartu dira Vitoria-Gasteizko Udalaren eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren txostenak.

Azkenik, instalazioak gehienez isur ditzakeen gai kutsagarrien muga-balioak eta ingurumena, oro har, ahalik eta gehien babesteko ustiapenerako ezarriko zaizkion beste baldintza batzuk zehazte aldera, ebazpen hau egiterakoan kontuan izan dira teknika erabilgarri onenak, eta aplikatzeko den sektoreko legeriak zehaztutako neurriak eta baldintzak. Zehazki, Europako Batzordearen BREF agiri hauen edukiak hartu dira kontuan: galdaketari buruzko 2005eko maiatzeko «Reference Document on Best Available Techniques in the Smitheries and Foundries Industry» BREF agiria; biltegiratzeari buruzko 2005eko urtarrileko «Reference Document on Best Available Techniques on Emissions from Storage» BREF agiria, eta hozteari buruzko 2001eko abenduko «Reference Document on the application of Best Available Techniques to Industrial Cooling Systems» BREF agiria.

Espedienteko txostenak aztertu ondoren, ebazpen-proposamena sinatu eta Enpresa enpresak sustatutako proiektuak bete beharreko baldintzak ezarri ziren.

Goian adierazitako izapideak amaitu dira, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 20. artikuluan jasotzen den entzunaldi-izapidea bete da, eta organo hau da ingurumeneko baimen bateratu hau emateko eskuduna, aipatutako araudiaren 13. artikuluan eta Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren egitura organikoa ezartzen duen urriaren 25eko 340/2005 Dekretuaren 9. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Organo hau da ingurumeneko baimen bateratu hau emateko eskuduna, aipatutako legearen 13. artikuluan eta Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren egitura organikoa ezartzen duen urriaren 25eko 340/2005 Dekretuaren 9. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Ondorengo araudia ikusi da: Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak 2008ko apirilaren 15ean emandako ebazpen-proposamena; otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra, Euskal Herriko Ingurumena Babesteari buruzkoa; 16/2002 Legea, uztailaren 1ekoa, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzkoa; ekainaren 28ko 1302/1986 Legegintzako Errege Dekretua, Ingurumenaren gaineko Eraginaren Ebaluazioari buruzkoa, maiatzaren 8ko 6/2001 Legeak aldatu zuena; irailaren 30eko 1131/1988 Errege Dekretua, Legea burutzeko araudia onartzen duena; urriaren 25eko 340/2005 Dekretua, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren egitura organikoa ezartzen duena; azaroaren 26ko 30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoa eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa, eta aplikatzekoa den gainerako araudia. Horrenbestez, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Egoitza soziala Vitoria-Gasteizko udalerriko (Araba) Jundiz kaleko 25. zenbakian eta IFK: A-01352368 duen Novacero, S.A.L. enpresari Ingurumeneko Baimen Bateratua ematea, helbide horretan kokatutako instalazioetan altzairu moldekatuzko piezak galdatzeko eta mekanizatzeko, ebazpen honen bigarren atalean ezarritako baldintzekin.

Jarduera Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 1. eranskinean jasota dago, hain zuzen ere 2.4 kategorian, «Burdina-metalen galdaketa, eguneko 20 tonatik gora ekoizteko ahalmena duena».

Novacero, S.A.L. enpresa Jundizko industrialdean dago, Vitoria-Gasteizko hirigunearen mendebaldean kokatuta, inguru zeharo urbanizatu eta industrialean, 51.570 m^2-ko azalera okupatuz, eta horietatik 21.260 m^2 eraikinak dira.

Jarduera nagusia altzairu galdatuzko piezak galdatzea eta mekanizatzea da, batik bat herri-lanetako makina astunen sektorerako, eta neurri apalagoan trenbidearen eta bestelako makinen industriarako, eta txanda bakoitzeko 25 t pieza garbi ekoizteko ahalmena du. Pieza ertain edo handiak dira, bezeroak hala eskatuta, forma konplexuak eta kalitate oso zorrotzeko akaberak dituztenak.

Ekoizte-prozesua hiru sail nagusitan banatzen da: galdaketa (altzairua labeetan galdatzea, eta moldeetan isurtzea pieza galdatuak lortzeko); akabera (mazarotak ebakitzea, esmerilaketa, kalitate-kontrola, prentsetan zuzentzea, pintatzea) eta pieza galdatuak mekanizatzea.

Altzairua galdatzeko, txatarra elektroiman bidez biltzen da, pisatu eta indukzio-labean edo arku elektrikoko labean sartzen da. Biek 5 t-ko edukiera dute. Galdaketako gehigarriak (ferroaleazioak, zepa-kentzailea, etab.) saskien bidez sartzen dira labean. Altzairu-galdaketa egin ondoren, galdari zepa kentzen zaio labea baskulatuz, eta galda-isurbidetik zalira isurtzen da galda.

Argintzan moldeetan sartu beharreko arrak prestatzen dira, kutxa hotzeko teknikaren bidez. Erretxina eta harea errotara eramaten dira, eta hor bi produktuen nahasketa egiten da. Nahasketa ar-desarragailu bakoitzean banatzen da. Bertan molde baten gainean desarra egiten da, eta erretxinarekin erreakzionatzean nahasketa gogortzen duen katalizatzailea (CO_2) injektatzen da.

Moldekatzeko kutxak 6 lerrotan prestatzen dira, % 2 harea berri, % 98 harea berreskuratu, gehigarriak, bentonita, zereala eta ura nahastuz (harea berdez moldekatzea). Moldea bi erditan fabrikatzen da, eta ereduak bere arrastoa uzten du bertan. Itxi aurretik arrak sartzen dira, eta pieza hutsak edo forma konplexuagokoak lortzen dira. Erabilitako moldeak zurgintza-tailer batean konpontzen edo aldatzen dira.

Moldea fabrikatu eta altzairua egoera likidoan (galda) izatean, moldean isurtzen da, eta tresnek eta molde barruko arrek eratutako hutsunea duten piezak lortzen dira.

Piezak galdatu eta hoztu ondoren, tunel bibratzailean desmoldekatzen dira. Tunelak automatikoki biltzen du harea, berreskuratze mekaniko bidez birziklatzeko. Ondoren, oxido-geruza eta harea-hondarrak ezabatzen dira, granailatzeko turbinadun bi makinatan eta mahuka pneumatikoa edo zurrusta librea duen batean.

Akabera-sailean pieza gordineko elementuak ezabatzen dira, hala nola erretenak eta isurbideak, horretarako oxiebaketa eta aire-arku bidezko ondorengo akabera bat erabiliz. Geometria MIG soldadura eta makina eseki eta eskuzko makinetan esmerilaketa bidez doitzen da.

Piezen % 70 ingururi normalizazio-tratamendu termikoa ematen zaio 920 ºC-ra, eta ondoren airean hozten da. Gainerako % 30ak ordezko tenplaketa- eta iraoketa-prozesu bat jasotzen du, enpresa laguntzaileei azpikontratatzen zaiena.

Piezek izan ditzaketen akatsak soldadura elektrikoz materiala itsatsiz konpontzen dira (MAG edo SMAW prozesua), eta ondoren partikula magnetikoen bidez ikuskapena eta kalitate-kontrola egiten zaie, eta estankotasun-kontrola behar duten piezei.

Piezak prentsetan zuzentzen dira, eta horien % 40 inguru murgilduta pintatzen dira.

Mekanizazio-sailean, txirbila harrotzeko eragiketak egiten zaizkie piezei, hala nola torneaketa, fresaketa, zulaketa, etab. Gainera, eragiketa osagarriak gauzatzen dira, hala nola dimentsio-kontrolak, estankotasun-kontrola, elementu txikiak muntatzea eta korrosio-kontrako babesa.

Fabrikatze-prozesua amaitutakoan, piezak paketatu eta bidali egiten dira.

Energia hauek erabiltzen dira lantegian: energia elektrikoa urtzeko labeetan (arku elektrikoa eta indukzioa) eta lantegiko makinen jardun orokorrean; gas naturala normalizatzeko labearen erregailuetan, oxiebaketako sopleteetan, berogailuan eta UBSan; gasolioa mekanizazio-pabiloiko berogailuko aerotermoan eta barne-garraioko orgatiletan, eta aire konprimitua ekipo pneumatikoetan.

Hauek dira isuri atmosferikoak sortzen dituzten instalazioak: urtzeko labeak, berdez moldekatzeko harea-lanak eta desmoldekatzea, akabera-lerroak, turbinadun granailatzeko makinak eta zurrusta librekoak, piezak pintatzea, arrak pintatzea, tratamendu termikoko labea, soldadura-postuak eta soplete bidez ebakitzekoak.

Horietatik, iragazketa-sistema dute labeen xurgapenek (mahuka-iragazkia), harea berdezko lanak (hidrozikloi bidez hezean iragaztea, mahuka-iragazkiaz ordeztu beharrekoa), granailatzeko kabinek (mahuka- edo kartutxo-iragazkiak), akaberako 2. lerroak (zikloi anitza), eta arrak pintatzeko iragazki estatikoak (kartoizko labirintoa).

Ura erabiltzen da berdez moldekatzeko prozesuan, labeen eta hareategiko hozte-dorreetan eta hezean iragazteko hareategiko hidrozikloian, eta baita lantegiko zerbitzu sanitarioetan ere. Moldekatzeko ur guztia lurrundu egiten da. Beraz, jarduerak hondakin-ur sanitarioak (komun eta aldageletakoak), industria-urak (hozte-zirkuitu itxien purgak eta garbiketak eta hidrozikloira ura gehitzea, dekantatu ondoren) eta euri-urak baino ez ditu isurtzen. Korronte horiek udal-kolektorera isurtzen dira.

Proiektuan, besteak beste, galdaketaren sektoreko 2005eko maiatzeko BREF agiriak (Reference Document on Best Available Techniques in the Smitheries and Foundries Industry) jasotzen dituen Teknika Erabilgarri Onenen (TEO) artean hauek azpimarra daitezke: txatarra estalkipean biltegiratzea, zuloetan. Txatar garbiak erabiltzea; O_2 injekzioa duen arku-labe elektrikoan galdatzea; kanpai bidez xurgatzea, mahuka-iragazkietan araztea; indukzio-labean, maiztasun ertainekoan galdatzea, estalkiko xurgapena, mahuka-iragazkietan araztea; harea berdez moldekatzean itxiturak eta hezeko iragazketa duen xurgapena. Harea % 93ko ratioan berreskuratzea; aminarik gabeko argintza, CO_2 erabiltzen da katalizatzaile gisa. Ur-oinarriko pintaketa eta arazketa-sistema eta partikula-iragazketa; piezak murgilketa bidezko pinturaz akabatzea, lurrunak xurgatu eta hustea; isuriak biltzea eta/edo araztea granailatzean, bizar-kentzean, eredu-tailerrean, etab.; tratamendu termikoa gas naturaleko labean, erregailu-kontrol automatizatua duena; zaratak murrizteko estrategia (zarata-mapa, konpresoreak ordeztea); hondakin geldoak biltegiratzean isuri barreiatuak murriztea. Isurketa-kontrola: drainatze-sistemen bidez toki seguruan biltegiratzea.

Hozte-zirkuitutik datozen uren fluxuei hozteari buruzko 2001eko abenduko zeharkako BREF agiria aplikatzen zaie (Reference Document on the application of Best Available Techniques to Industrial Cooling Systems).

Bigarrena.– Novacero, S.A.L. enpresak Vitoria-Gasteizko udalerrian sustatutako altzairu moldekatuzko piezak galdatzeko eta mekanizatzeko jarduera ustiatzeko ondorengo baldintzak eta eskakizunak ezartzea.

A) Administrazioarekiko harremanen arduradunari buruz emandako datuetan aldaketarik badago, Novacero, S.A.L. enpresak aldaketa horien berri emango du Ingurumen Sailburuordetzan.

B) Neurri babesle eta zuzentzaileak, sustatzaileak Ingurumen Sailburuordetza honetan aurkeztu dituen agirietan aurreikusi bezala burutuko dira, indarrean dagoen araudiaren arabera eta ondorengo ataletan ezarritakoari jarraituz:

B.1.– Instalazioaren jardunerako baldintza orokorrak.

B.1.1.– Airearen kalitatea babesteko baldintzak.

B.1.1.1.– Baldintza orokorrak.

Novacero, S.A.L. instalazioa ustiatzean egingo diren isuri atmosferikoek ez dituzte ebazpen honetan ezarritako isurtzeko muga-balioak gainditukо.

Prozesuan zehar atmosferara isurtzen den gai kutsatzaile oro bildu eta ihesbide egokienean zehar kanpora bideratuko da, behar denean, gai kutsatzaileen ezaugarrien arabera diseinatutako gasak arazteko sistema batetik igaro ondoren.

Arau orokor hori bete beharrik ez dute izango isuri ez-zarratuak biltzea teknikoki edota ekonomikoki bideragarria ez denean, edo ingurunean kalte urria eragiten dutela egiaztatzen denean.

Neurriak hartuko dira ustekabeko isuririk ez egiteko, eta egiten direnak giza osasunerako eta gizartearen segurtasunerako arriskutsuak izan ez daitezen. Gas-efluenteak tratatzeko instalazioak behar bezala ustiatu eta zainduko dira, efluenteen tenperatura- eta konposizio-aldakuntzei modu eraginkorrean aurre egiteko. Era berean, ahalik eta gehien murriztuko dira instalazio horiek gaizki dabiltzan edo geldirik dauden aldiak.

B.1.1.2.– Fokuak identifikatzea. Katalogazioa.

Novacero, S.A.L. instalazioak ondoko fokuak ditu, indarrean dagoen araudiaren arabera katalogatuta:

Fokuaren zk.	Foku-kodea	Isurtze-fokuaren izena	Garaiera (m)	Diam. (m)	Katalogazioa		UTM koordenatuak	
					Taldea	Epigrafea	X	Y
1	01006172-01	Alju Regina 95-F granailatzeko makina eta aire-arkua	16,0	1,1	C	3.12.	521.746	4.742.840
2	01006172-02	2. lerroko akabera. Harrizko bizar esekia	10,8	0,7	C	3.12.	521.746	4.742.809
3	01006172-03	3. lerroko akabera. Bizarra.	11,3	1,0	C	3.12.	521.783	4.742.773
4	01006172-04	4. lerroko akabera. Bizarra.	11,3	1,0	C	3.12.	521.791	4.742.775
5	01006172-05	Piezak murgilduta pintatzea	9,0	0,8	B	2.12.1.	521.852	4.742.800
6	01006172-06	Desmoldekatzea eta hareategia	16,4	1,3	C	3.3.2.	521.809	4.742.854
7	01006172-07	Galdaketa	16,2	1,5	B	2.3.1.	521.873	4.742.820
8	01006172-08	Alju Regina 95-F-1 granailatzeko makina	12,0	0,7	C	3.12.	521.769	4.742.770
9	01006172-09	Zurrusta libreko granailatzea	9,0	0,7	C	3.12.	521.802	4.742.775
10	01006172-10	Arrak pintatzea	10,0	0,8	B	2.12.1.	521.846	4.742.826
11	01006172-11	Normalizazio-tratamenduko labea	11,52	-	C	3.3.1.	521.764	4.742.784
12	01006172-12	Galdaketako akaberako soldadura	10,0	0,7	C	3.12.	521.765	4.742.807
13	01006172-13	Soplete bidezko 1-2. ebaketa	-	-	C	3.12.	521.760	4.742.817
14	01006172-14	Soplete bidezko 3-4. ebaketa	-	-	C	3.12.	-	-
15	01006172-15	Soplete bidezko 5-6. ebaketa	-	-	C	3.12.	-	-
16-D	01006172-16	Ereduen zurgintza-tailerra			Foku ez-sistematikoa			

Egiaztatu egin beharko da «Desmoldekatzea eta hareategia» 6. fokuak, «Alju Regina 95-F-1 granailatzeko makina» 8. fokuak eta «Zurrusta libreko granailatzeko makina» 9. fokuak aurreko taulan adierazi den bezala egokitu direla benetan, iragazketa-sistema berriak ezarritakoan (hareategiko eta desmoldekatzeko hezean iragaztea mahuka-iragazkiarekin ordeztea, 2008ko udan; mahuka-iragazki berria 8. fokuan, oraingo kartutxo-iragazkia ordeztuz eta azken hori 9. fokura eramanez, 2008ko apiril-maiatzean).

«Tratamendu termikoko labea» 11. fokurako, gaitu beharreko tximiniaren ahoa adierazitako garaieran kokatuko da gutxienez, egindako kalkuluaren arabera.

11, 13, 14 eta 15. fokuetarako tximiniaren garaierari eta diametroari buruzko datuak, eta oxigeno eta gasezko soplete bidez ebakitzeko hiru fokuen UTM koordenatuak adierazi beharko dira.

Horiez gain beste isuri-iturri hauek ere badira:

Isuri barreiatu etenak sortzen dira hondakin geldoen biltegietan (zepak, erregogorrak, iragazketako hautsa, etab.), ibilgailuak barneko bideetatik ibiltzean, arku elektrikoko labean galdatzean (oraingo arkuko labearen bilketatik ihes egiten duten isuriak), galda zalietan eta isurketa moldeetan isurtzean, eta tratamendu termikoko labean.

B.1.1.3.– Isurtzeko muga-balioak.

a) Isuri atmosferikoek isurtzeko muga-balio hauek ez gainditzeko moduan ustiatuko da instalazioa:

Fokuak	Substantziak	Isurtzeko muga-balioak
1.– Alju Regina 95-F granailatzeko makina eta aire-arkua	Guztizko partikulak (GP)	20 mg/Nm^3
2.– 2. lerroko akabera. Harrizko bizar esekia	Guztizko partikulak (GP)	20 mg/Nm^3
3.– 3. lerroko akabera. Bizarra.	Guztizko partikulak (GP)	20 mg/Nm^3
4.– 4. lerroko akabera. Bizarra.	Guztizko partikulak (GP)	20 mg/Nm^3
5.– Piezak murgilduta pintatzea	Guztizko partikulak (GP)	150 mg/Nm^3
	Konposatu organiko hegazkorrak (KOG gisa neurtuta)	100 mg C /Nm^3
6.– Desmoldekatzea eta hareategia	Guztizko partikulak (GP)	20 mg/Nm^3
7.– Galdaketa	Guztizko partikulak (GP)	20 mg/Nm^3
	Nitrogeno oxidoak (NO_X)	300 ppm
	Karbono monoxidoa (CO)	500 ppm
8.– Alju Regina 95-F-1 granailatzeko makina	Guztizko partikulak (GP)	20 mg/Nm^3
9.– Zurrusta libreko granailatzea	Guztizko partikulak (GP)	20 mg/Nm^3
10.– Arrak pintatzea	Guztizko partikulak (GP)	20 mg/Nm^3
	Konposatu organiko hegazkorrak (KOG gisa neurtuta)	100 mgC/Nm^3
11.– Normalizazio-tratamenduko labea	Guztizko partikulak (GP)	20 mg/Nm^3
	Karbono monoxidoa (CO)	500 ppm
	Nitrogeno oxidoak (NO_X)	300 ppm
12.– Galdaketako akaberako soldadura	Guztizko partikulak (GP)	20 mg/Nm^3
13.– Soplete bidezko 1-2. ebaketa	Guztizko partikulak (GP)	20 mg/Nm^3
14.– Soplete bidezko 3-4. ebaketa	Guztizko partikulak (GP)	20 mg/Nm^3
15.– Soplete bidezko 5-6. ebaketa	Guztizko partikulak (GP)	20 mg/Nm^3

Balio horiek baldintza hauek dituzte: 273 K-eko tenperatura, 101,3 kPa-eko presioa eta gas lehorra.

b) Neurtutako parametroek ez dituzte isurtzeko muga-balioak gainditu ko, arauz egingo diren aldizkako ikuskapenetan (ordubeteko hiru neurketa, gutxienez) zortzi ordutan zehar neurtuta. Neurketa-tolerantzia gisa, kasu guztien % 25ean gainditu ahal izango da muga-balioa, % 40 gainditzen ez duen zenbatekoa baldin bada. Tolerantzia hori gainditu z gero, neurketa-aldia astebetez luzatuko da, eta aldi horretako tolerantzia global gisa, kasuen % 6an gehienez onar daitezkeen mailak gainditzea onartuko da, % 25a gainditzen ez duen zenbatekoa denean. Tolerantzia horiek izanda ere, gai kutsatzaileak isurtzen dituen fokuaren eragin-eremuan ezin izango dira inoiz higienikoki onar daitezkeen balioak gainditu.

KOHei dagokienez (KOG gisa neurtuak), ez dituzte isurtzeko muga-balioak gainditu ko arauz egingo diren aldizkako ikuskapenetan (ordubeteko hiru neurketa gutxienez), baldin eta neurketa guztien batez bestekoak isurtzeko muga-balioak gainditzen ez baditu eta ordubeteko neurketetako batek ere isurtzeko muga-balioak 1,5eko faktoretik gora gainditzen ez baditu.

B.1.1.4.– Gasak biltzeko eta husteko sistema.

Fokuetako hondakin-gasak kanporatzeko tximiniak ez dira egongo B.1.1.2 atalean ezarritako goreneko kotatik behera. Tximiniek Industria Ministerioaren 1976ko urriaren 18ko Agindua, industriak atmosferan sortzen duen kutsadura saihestu eta zuzentzekoan ezarritako baldintzak beteko dituzte; horrela, besteak beste, laginak hartzeko puntuetara sarbide seguruak eta errazak jarriko dituzte.

Zehazki, laginak hartzeko aurreikusitako zuloen kokapenari eta ezaugarriei dagokienez, gas-fluxuak laginketa-puntutik neurketa-puntura bitartean, bere norabidean zehar nahiz aurkakoan, edozein asaldu izan dezakeen gunera bitarteko distantziek (L1 eta L2 parametroak) 1976ko urriaren 18ko Aginduaren III. eranskinean xedatutakoa beteko dute.

L1 ≥ 8D eta L2 ≥ 2D distantziak betetzen ez diren fokuetarako inoiz ez dira L1 < 2D eta L2 < 0,5D balioak onartuko. Kasu horietan, neurketen txostenean laginketa-planoaren baliotasuna justifikatzea eskatuko da.

Isuri barreiatuak murriztearren, arkuko labeko xurgapen-kanpaia aldatuko da, eta tratamendu termikoko labearen isuriak zarratuko dira, tximiniaren bidez kanpora eramateko. Hondakin geldoak metatzeko eremuak jarriko dira, aspertsore tenporizatuko sistemak dituzten hormek mugatuta, horien hezetasunari eutsi eta hautsa harrotzea saihesteko; eta hautsezko hondakinak edo pikortatuak garraiatzeko sistemak ere jarriko dira, horiek sakabanatzea saihesteko. Halaber, zoladura eta asfaltatua egoera onean zainduko dira ibilgailu astunen edota barne-ibilgailuen joan-etorrietarako eremu guztietan.

B.1.2.– Saneamendu-sarera isurtzeko baldintzak.

B.1.2.1.– Isurketen jatorria eta kokapena.

Isurketa sortzen duen jarduera mota nagusia: altzairu-galdaketa.

Jarduera-taldea: metala.

Mota-taldea-EJSN: 1-2-2752.

Isurketa-puntua	Hondakin-ur mota	Isurketaren jatorria	Ingurune hartzailea	Isurketa-puntuaren UTM koordenatuak
V1	Industria-urak. Ur sanitarioak. Euri-urak	3 hozte-dorreetako zirkuituak hustu eta purgatzea Olio-bereizgailuaren osteko konpresoreen purgak. Hezean iragazteko hareategiko sistemako soberakinak. Komunetako eta aldageletako ur sanitarioak Patioetako eta estalkietako euri-urak	Udal-kolektorea	X: 521.857 Y: 4.743.012

Ondorengo isurketa motak sortzen ditu jarduerak: hareategian eta desmoldekatzean hezean iragazteko sistemaren dekantagailuko gainezkaldietako hondakin-urak (iragazketa-sistema mahuka-iragazki batez ordeztean ezabatu beharrekoa), olioak bereizi osteko konpresoreen purgak, eta labeen eta hareategiko hozte-dorreen purgak eta hustuketak; hondakin-ur sanitarioak, eta estalki, bide eta patioetako euri-urak. Isurketa guztiak udaleko estolda-sarera isurtzen dira puntu bakar batetik.

B.1.2.2.– Isurtzeko muga-balioak.

Azken isurketak Vitoria-Gasteizko Etxekoak ez diren Isurketei buruzko Udal Ordenantzan ageri diren mugak eta baldintzak bete beharko ditu, erakunde horrek ezar ditzakeen zehaztapen, aldaketa edo salbuespenekin batera.

Enpresak isurketa-puntuaren karakterizazio osoa aurkeztu beharko du. Horretarako, kontuan hartuko dira gutxienez jardueraren parametro orokorrak, eta Europako Batzordeko Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak EPER gauzatzeko 2000ko uztailaren 17an argitaratutako Bideratze Agirian, eta aplikatzekoak diren BREF agirietan zehaztutako arloko azpizerrenden araberako ohiko parametroak.

Horrela, enpresa eskatzaileak administrazio hidraulikoaren erakunde laguntzaile batek egindako analisi bat aurkeztuko du, gutxienez isurketa-puntu bakoitzaren lagin bateko kutsatzaile horiek kontuan izanda; lagina 24 orduko ur-emariarekiko proportzionala izango da, edo bestela, lagin puntual esanguratsua.

Ezingo dira diluzio-teknikak erabili isurtzeko muga-balioak lortzeko.

Hozte-zirkuituak husteko arau egokien bidez errespetatu eta bermatu behar den protokoloa ondorengoa izango da:

1.– Husteko gutxieneko denbora: 72 h.

2.– Hondar-kloro askea erreaktiboak gehituz edo beharrezko denboran pausagune bidez, etab. ezabatzea, eta zuzeneko «in situ» analisi-kontrola, isuri aurretik klororik ez dagoela bermatzeko.

3.– Putzuaren hondoan metatutako lohiak kendu eta hustea, hori isurtzea derrigorrez saihestu behar baita.

B.1.2.3.– Arazteko eta husteko instalazioak.

Hondakin-uren arazketa-instalazioek edo hondakin-urak zuzentzeko neurriek jarduera nagusi hauek izango dituzte: aldizkako hustuketaren aurretik hozte-zirkuituko urak neutralizatzea, eta hezean iragazteko hareategiko sistemako (hidrozikloia) urak dekantatzea, hori jardunean den artean.

Zerbitzuko aire-konpresoreek galdaratxoak purgatu ondoren sortutako olioak ezabatzeko ekipamendu berezia izan behar dute nahitaez.

Aplikatu beharreko isurketa-mugak betetzen ez direla ikusiz gero, Novacero, S.A.L. enpresak beharrezko aldaketak egin beharko ditu arazketa-instalazioetan, isurketa baimendutako ezaugarrietara egokitze aldera. Aldez aurretik Administrazioari jakinarazi beharko dio, eta hala badagokio, baimena aldatzea eskatuko du.

Kontrol-kutxetak egongo dira, kolektorera azken isurketa egin aurretik, industria-uren eta euri-uren fluxuen laginak hartu eta banakako karakterizazioa egin ahal izateko. Kutxeta horiek beharrezko ezaugarriak izan beharko dituzte isurketen lagin esanguratsuak eskuratu ahal izateko. Kutxetak ikuskatu ahal izateko sarbide zuzena ahalbidetzen duten lekuan kokatuko dira, hala badagokio.

B.1.3.– Instalazioan sortutako hondakinak egoki kudeatzen direla bermatzeko baldintzak.

Instalazioetan sortzen diren hondakin guztiak hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legean eta aplikatzekoa den berariazko gainerako araudian xedatutakoari jarraituz kudeatuko dira; hala badagokio, hondakinak karakterizatu egin beharko dira horien izaera zehaztu eta helmuga egokiena erabakitzeko.

Espresuki debekatuta dago sortzen diren tipologia desberdineko hondakinak elkarrekin edo beste hondakin nahiz efluente batzuekin nahastea; hondakinak jatorritik bertatik bereiziko dira eta horiek bildu eta biltegiratzeko bide egokiak jarriko dira, nahasketak saihesteko.

Hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei jarraituz, hondakin oro balioztatu egin behar da, eta horretarako balioztagune baimendu batera eraman behar dira. Hondakinak ezabatu ahal izango dira, baldin eta horiek balioztatzea teknika, ekonomia edota ingurumen aldetik bideragarria ez dela behar bezala egiaztatzen bada. Birsortzea eta berrerabiltzea lehenetsiko dira balioztatzeko beste modu material edo energetikoren aurretik.

Era berean, hondakinak tratatzeko Euskal Autonomia Erkidegoan instalazio baimenduak badaude, instalazio horietara bidaliko dira lehentasunez, autosufizientzia- eta gertutasun-printzipioei jarraituz.

Baimendutako zabortegian ezabatzea aurreikusita dagoen hondakinen karakterizazioa, 2002ko abenduaren 19ko Kontseiluaren 2003/33/EE Erabakiarekin bat etorriz gauzatuko da. Erabaki horren bidez, hondakinak zabortegian hartzeko irizpideak eta prozedurak ezartzen dira. Bestela, erabaki hori garatzeko Euskal Autonomia Erkidegoan onartutako artezpideekin bat etorriz gauzatuko da.

Hondakinak biltegiratzeko guneak edo guneek lurzoru estankoa izan beharko dute. Egoera fisiko likidoan edo oretsuan dauden edo oso bustita daudelako isurketak edo lixibiatuak sor ditzaketen hondakinen kasuan, horiek biltzeko kubeta edo sistema egokiak jarriko dira, ezbeharrez gerta daitezkeen jarioak kanpora irten ez daitezen. Hondakina hautsa bada, euri-urarekin kontakturik izan dezan edo haizeak arrasta dezan saihestuko da; behar izanez gero, estali egingo da.

Hondakinak desagertu, galdu edo ihes eginez gero, berehala jakinaraziko da gertatutakoa Ingurumen Sailburuordetzan eta Vitoria-Gasteizeko Udalean.

B.1.3.1.– Hondakin arriskutsuak.

Sustatzaileak adierazitako hondakin arriskutsuak hauek dira:

● 1. prozesua: «Zerbitzu orokorrak».

○ 1. hondakina: «Glikoldun ura».

– Identifikazioa: A01352368/0100009078/1/1.

– Hondakinaren kodea: Q5//D9//L20//C43//H5//A230//B0019.

– EHZ kodea: 070101.

– Urtean sortutako kantitatea: noizean behin.

○ 2. hondakina: «Hondakin-olio erabilia».

– Identifikazioa: A01352368/0100009078/1/2.

– Hondakinaren kodea: Q7//R13//L8//C51//H5/6//A230//B0019.

– EHZ kodea: 130110.

– Urtean sortutako kantitatea: 12.400 kg/urte.

○ 3. hondakina: «Olioa duten urak».

– Identifikazioa: A01352368/0100009078/1/3.

– Hondakinaren kodea: Q10//D9//L8//C51//H5//A230//B0019.

– EHZ kodea: 120109.

– Urtean sortutako kantitatea: 8.200 kg/urte.

Konpresoreen purgetatik eta olioekin nahastutako bestelako uretatik olioak bereizteko dagoen dekantagailuan sortutako hondakin oliotsuak.

○ 4. hondakina: «Taladrina».

– Identifikazioa: A01352368/0100009078/1/4.

– Hondakinaren kodea: Q10//D9//L9//C51//H5//A230//B0019.

– EHZ kodea: 120109.

– Urtean sortutako kantitatea: 20.600 kg/urte.

○ 5. hondakina: «Erretxina duen olioa Lehengai zaharkituak».

– Identifikazioa: A01352368/0100009078/1/5.

– Hondakinaren kodea: Q7//R13//L9//C51//H5//A230//B0019.

– EHZ kodea: 130113.

– Urtean sortutako kantitatea: 2.400 kg/urte.

○ 6. hondakina: «Garbiketa-urak».

– Identifikazioa: A01352368/0100009078/1/6.

– Hondakinaren kodea: Q5//D9//L9//C51//H5//A230//B0019.

– EHZ kodea: 120301.

– Urtean sortutako kantitatea: 24.000 kg/urte.

○ 7. hondakina: «Metalezko ontzi kutsatuak».

– Identifikazioa: A01352368/0100009078/1/7.

– Hondakinaren kodea: Q6//R13//S36//C41/51//H5//A230//B0019.

– EHZ: 150110.

– Urtean sortutako kantitatea: 2.000 kg/urte.

○ 8. hondakina: «Plastikozko ontzi kutsatuak».

– Identifikazioa: A01352368/0100009078/1/8.

– Hondakinaren kodea: Q5//R13//S36//C41/51//H5//A230//B0019.

– EHZ: 150110.

– Urtean sortutako kantitatea: noizean behin.

○ 9. hondakina: «Hodi fluoreszenteak eta merkuriozko lanparak».

– Identifikazioa: A01352368/0100009078/1/9.

– Hondakinaren kodea: Q6//R13//S40//C16//H14//A230//B0019.

– EHZ: 200121.

– Urtean sortutako kantitatea: 100 kg/urte.

○ 10. hondakina: «Pilak».

– Identifikazioa: A01352368/0100009078/1/10.

– Hondakinaren kodea: Q6//R13//S37//C7//H14//A230//B0019.

– EHZ kodea: 160603.

– Urtean sortutako kantitatea: 100 kg/urte.

○ 11. hondakina: «Xurgatzaileak eta material kutsatuak».

– Identifikazioa: A01352368/0100009078/1/11.

– Hondakinaren kodea: Q5//D15//S40//C41/51//H5//A230//B0019.

– EHZ: 150202.

– Urtean sortutako kantitatea: 100 kg/urte.

○ 12. hondakina: «Pintura-hondarrak».

– Identifikazioa: A01352368/0100009078/1/12.

– Hondakinaren kodea: Q7//D15// S12//C41//H5//A230//B0019.

– EHZ: 080111.

– Urtean sortutako kantitatea: 400 kg/urte.

○ 13. hondakina: «Disolbatzaile organiko ez-halogenatua».

– Identifikazioa: A01352368/0100009078/1/13.

– Hondakinaren kodea: Q3//R13//L5//C41/H6//A230//B0019.

– EHZ: 140603.

– Urtean sortutako kantitatea: noizean behin.

○ 14. hondakina: «Ikatz aktibozko iragazkiak».

– Identifikazioa: A01352368/0100009078/1/14.

– Hondakinaren kodea: Q9//D15//S35//C51//H5//A230//B0019.

– EHZ: 150202.

– Urtean sortutako kantitatea: noizean behin.

Konpresoreen purgak tratatzean sortzen dira; xurgatutako gaiez zikindutako iragazkiak dira.

○ 15. hondakina: «Ekipo elektriko eta elektronikoak».

– Identifikazioa: A01352368/0100009078/1/15.

– Hondakinaren kodea: Q14//R13//S40//C6/18//H6//A230//B0019.

– EHZ kodea: 160213.

– Urtean sortutako kantitatea: noizean behin.

○ 16. hondakina: «II. taldeko hondakin sanitarioak Ebakitzaileak eta zorrotzak».

– Identifikazioa: A01352368/0100009078/1/16.

– Hondakinaren kodea: Q12//D10//S1//C35//H9//A230//B0019.

– EHZ: 180103.

– Urtean sortutako kantitatea: 5 kg/urte.

Xiringak eta botikineko bestelako objektu zorrotz edo ebakitzaileak. 5 litroko berariazko edukiontzian, hiru hilero biltzen da.

● 2. prozesua: «Galdaketa».

○ 1. hondakina: «Labeen xurgapeneko hautsa».

– Identifikazioa: A01030287/0100006235/2/1.

– Hondakinaren kodea: Q8//R13//S25//C41//H5//A230//B3109.

– EHZ: 100207.

– Urtean sortutako kantitatea: 20.000 kg/urte.

Labeen xurgapenaren iragazketa-sisteman sortua. Big-bagetan biltzen da.

a) Hondakin arriskutsuak biltzeko sistemak bereiziak izango dira, duten tipologia dela-eta, jarioren bat gertatuz gero, nahasi, arriskutsuago bihurtu edo kudeaketa zaildu dezaketen kasuetan.

b) Hondakin arriskutsuak dituzten ontziek hondakin toxiko eta arriskutsuei buruzko maiatzaren 14ko 20/1986 Oinarrizko Legea betearazteko erregelamendua onartzen duen uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuak 13. artikuluan ezarritako segurtasun-arauak kontuan izan beharko dituzte, eta itxita egongo dira kudeatzaileak jaso arte, isuri edo lurrundu ez daitezen.

c) Aurreko atalean aipatzen diren ontziek etiketatuta egon beharko dute, eta etiketak argia, irakurtzeko modukoa eta ezabaezina izan beharko du; etiketa uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuak 14. artikuluan horretarako adierazitako jarraibideen araberakoa izango da.

d) Berariazko hondakin sanitarioak (II. taldea) manipulatu, ontziratu, etiketatu eta biltegiratzeko baldintzak martxoaren 26ko 76/2002 Dekretuan, Euskal Autonomia Erkidegoan hondakin sanitarioak kudeatzeko baldintzak arautzeari buruzkoan, eta hori garatzeko araudietan ezarritakoak izango dira.

e) Gainerako hondakin arriskutsuak ezin izango dira 6 hilabetetik gora biltegiratu.

f) Hondakinak kudeatzaile baimenduaren instalazioetara eraman aurretik, nahitaezko baldintza izango da agiri baten bidez egiaztatzea kudeatzaile baimendu horrek hondakinak onartu dituela. Agiri horretan hondakinak onartzeko baldintzak ezarriko dira, eta egiaztatu egingo da tratatu beharreko hondakinaren ezaugarriak administrazio-baimenarekin bat datozela. Agiri hori Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko da hondakina lehenengoz erretiratu aurretik eta, behar izanez gero, hondakinen kudeatzaile berri batengana eraman aurretik. Beharrezkoa izanez gero, karakterizazio xehatua egingo da, proposatutako tratamenduaren egokitasuna egiaztatzeko. Hala badagokio, arrazoitu egin beharko da proposatutako kudeaketa-modua ebazpen honetako hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei egokitzen zaiela.

g) Hondakin arriskutsuak eraman aurretik eta, hala badagokio, araudian ezarritako aurretiazko jakinarazpena egin ondoren, kontrolerako eta jarraipenerako agiria bete beharko da. Agiri horren zati bat garraiolariari emango zaio, zamarekin batera jatorritik helmugaraino eraman dezan. Novacero, S.A.L. enpresak artxibategian erregistratu eta gorde beharko ditu onarpen-agiriak eta kontrolerako eta jarraipenerako agiriak, edo horien agiri ofizial baliokideak, bost urtean gutxienez.

h) Egiaztatu egin beharko da hondakin arriskutsuak kudeatzaile baimenduaren instalazioetara eramateko erabiliko den garraiobideak horrelako gaiak garraiatzeko indarrean dagoen legerian ezarritako baldintzak betetzen dituela.

i) Novacero, S.A.L. enpresak ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretuari, industrian erabilitako olioaren kudeaketa arautzen duenari, jarraituz kudeatu beharko du sortutako olio erabilia.

j) Ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretuan, industrian erabilitako olioaren kudeaketa arautzen duenean aurreikusitako baimendutako kudeaketa bateraturako sistema bat ezartzen ez den bitartean, irailaren 29ko 259/1998 Dekretuan, Euskal Autonomia Erkidegoan erabilitako olioaren kudeaketa arautzen duenean begiesten diren aurreikuspenak bete beharko ditu Novacero, S.A.L. enpresak.

k) Ekipo elektriko eta elektronikoen hondakinak, horien artean hodi fluoreszenteak, otsailaren 25eko 208/2005 Errege Dekretuan, tresna elektriko zein elektronikoei eta horien hondakinen kudeaketari buruzkoan ezarritakoaren arabera kudeatuko dira.

l) Novacero, S.A.L. enpresak PCB daukaten edo eduki dezaketen gailuak dituen artean, nahitaez bete behar ditu horiek behar bezala kudeatzeko abuztuaren 27ko 1378/1999 Errege Dekretua, poliklorobifeniloak, polikloroterfeniloak eta horiek dituzten gailuak ezabatu eta kudeatzeko neurriak ezartzen dituena, eta errege-dekretu hori aldatzen duen otsailaren 24ko 228/2006 Errege Dekretua.

m) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2000ko ekainaren 29ko 2037/2000 EE Arautegian ozono-geruza agortzen duten substantzia batzuk zehazten eta arautzen dira. Novacero, S.A.L. enpresak era horretako substantziarik badu, substantzia horiek bildu eta suntsitu egingo dira aldeek erabakitako bide teknikoak erabiliz edota ingurumen-ikuspuntutik onar daitekeen suntsiketarako beste edozein bide erabiliz; hondakin horiek birziklatu edo birsortu egingo dira bestela, aparailuak aztertu eta mantentzeko lanen aurretik, edo desmuntatu edo suntsitu baino lehen.

n) Novacero, S.A.L. enpresak urtero adierazi beharko dio Ingurumen Sailburuordetzari ekitaldi bakoitzean sortu dituen hondakin arriskutsu guztien jatorria, kopurua, helmuga eta aldi baterako biltegiratuta dauden hondakinen zerrenda.

o) Erregistro bat edukiko du, hondakin arriskutsuei buruzko datu hauek agerrarazteko: kopurua, izaera, identifikazio-kodea, jatorria, tratatzeko metodo eta tokiak, sorrera- eta lagapen-datak, jasotzeko maiztasuna eta garraiatzeko modua, uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuaren 17. artikuluan ezarritakoa betez, eta uztailaren 20ko 952/1997 Errege Dekretuaren bidezko aldaketan ezarritakoa betez. Sei hilean behin, Ingurumen Sailburuordetzari kontrolerako erregistro horren kopia bidaliko dio.

p) Hondakin arriskutsuen kudeaketako funtsezko oinarrietako bat bete dadin, hau da, hondakin horiek ahal den gutxiena sortzeko, Novacero, S.A.L. enpresak neurri babesleak erabiliz hondakin arriskutsuen sorrera gutxitzeko plana egin eta aurkeztu beharko du Ingurumen Sailburuordetza honetan, gutxienez lau urtean behin.

q) Aurreko f), g) (kudeatzaileak EAEn daudenean), n) eta o) ataletan adierazitako agiriak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira, ahal dela transakzio elektroniko bidez, IKS-L03 Sistemaren erakundeentzako bertsioa erabilita.

r) Amiantoa duten hondakinak antzemanez gero, Novacero, S.A.L. enpresak amiantoak ingurumenean sortzen duen kutsadura saihestu eta gutxitzeari buruzko 1991ko otsailaren 1eko 108/1991 Errege Dekretuan ezarritako eskakizunak bete beharko ditu. Era berean, amiantoa duten hondakinak kudeatzeko egingo diren manipulazioak martxoaren 31ko 396/2006 Errege Dekretuan ezarritako aginduen arabera burutuko dira; dekretu horren bidez ezarri ziren amiantoarekin lan egiterakoan segurtasun- eta osasun-arloan bete behar diren gutxieneko baldintzak.

B.1.3.2.– Hondakin ez-arriskutsuak.

Sustatzaileak adierazitako hondakin ez-arriskutsuak hauek dira:

Hondakinaren izena	EHZ kodea	Zein prozesuri lotuta	Zenbatetsitako ekoizpena
Labeko zepak	100903	Galdaketa	1.687 t/urte
Erregogorrak, labeen estaldurak eta zaliak	161102	Galdaketa	2.225 t/urte
Molde eta ar hautsiak		Moldekatzea eta desmoldekatzea Hareategia	350 t/urte
Baheketako hondakinak (harea berreskuratzea)		Moldekatzea eta desmoldekatzea Hareategia	450 t/urte

Hondakinaren izena	EHZ kodea	Zein prozesuri lotuta	Zenbatetsitako ekoizpena
Desondartzearen hondakinak		Moldekatzea eta desmoldekatzea Hareategia	50 t/urte
Granailatzearen hondakinak (xurgapenetako hautsa)	120117	Galdaketako akabera	2.000 t/urte
Granailatzearen hondakinak (baheketa)	120117	Galdaketako akabera	225 t/urte
Burdina- eta altzairu-hondarren eta bestelako materialen nahasketak	170405	Galdaketako akabera	200 t/urte
Harri urratzaileak eta esmerilaketako materialak	120121	Galdaketako akabera	50 t/urte
Altzairu-txirbila	120101	Mekanizazioa	519 t/urte
Ebaketako plakatxo eta tresna erabiliak		Mekanizazioa	1 t/urte
Altzairu-txatarra		Zerbitzu Orokorrak	103 t/urte
Papera eta kartoia		Zerbitzu Orokorrak	16,8 t/urte
Zura		Zerbitzu Orokorrak	38,1 t/urte
Hiriko hondakinekin bateratu daitezkeenak		Zerbitzu Orokorrak	84,7 t/urte

Hondakin hauen EHZ kodeak aurkeztu beharko dira: molde eta ar hautsiak, baheketako hondakinak (harea berreskuratzea, desondartzearen hondakinak), ebaketako plakatxo eta tresna erabiliak, altzairu-txatarra, papera eta kartoia, zura. «Hezean iragazteko hareategiko sisteman (hidrozikloia) dekantatutako lohiak» hondakina badagoen arrazoitu behar da: horren EHZ kodea, kudeaketa-modua eta urtean kudeatutako kantitatea.

a) Ebazpen honen B.1.3 atalak hondakinen kudeaketarako printzipio hierarkikoei buruz dioenaren arabera, harea berdez moldekatzeko prozesuko hareak eta hareategiko jalkin xeheak kudeatzeko, baliotu egingo dira eta ez dira zabortegian utziko. Baliotzea ez beste modu batera kudeatzen bada, Sailburuordetza honen aurrean aurkeztu beharko da proposamena.

b) «Labe eta zalietako erregogorrak», «moldekatze-hondarra (baheketa edo desondartzea)», «ar eta molde hautsiak» eta «hareategiko hidrozikloian dekantatutako lohiak» hondakinek ispilu-sarrera dute gaur egun indarrean dagoen hondakinen Europako zerrendan. Bada, horiek hondakin ez-arriskutsutzat hartuko dira, baldin eta hondakin horiek aurrez karakterizatzen badira; karakterizazio horren emaitzak Ingurumen Sailburuordetzara bidali beharko dira, proposatutako kudeaketa egokia ote den egiaztatzeko. Baldin eta hondakin hori arriskutsua dela erabakitzen bada, ebazpen honetako B.1.3.1 atalean jasotako xedapenak aplikatuko dira.

c) B.1.3 atalean bereiztearen eta hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoen inguruan xedatutakoari jarraituz, nahasketak izeneko hondakinek ezingo dute baliotu daitekeen hondakin-frakziorik izan. Horri dagokionez, egungo egoeran Euskal Autonomia Erkideagoan baliotu daitezkeen hondakin-frakzioak hauek dira: papera eta kartoia, zura, plastikoak, urratzaileak, metal ferrikoak eta metal ez-ferrikoak.

d) Erabilitako ontziak eta ontzi-hondakinak gaika behar bezala bereizi eta eragile ekonomiko bati emango zaizkio (hornitzaileari), erabilitako ontzien kasuan berriro erabili ahal izateko; ontzi-hondakinak, berriz, berreskuratzaile, birziklatzaile edo balioztagune baimendu batera.

e) Hondakin horiek ezabatzeko direnean ezingo dira urtebetetik gora biltegiratu. Hondakinen azken helburua baliotzea denean, 2 urtez biltegiratu ahal izango dira.

f) Oro har, hondakinak hustu aurretik, kudeatzaile baimendu batek onartzen dituela dioen agiria izan beharko dute, onarpen horretarako baldintzak zehaztuta. Agiri horren kopia bidali beharko da Ingurumen Sailburuordetzara, proposatutako kudeaketa egokia dela eta ebazpen honetan ezarritako oinarrizko printzipioak betetzen direla egiaztatzeko. Hala badagokio, arrazoitu egin beharko

da proposatutako kudeaketa-modua ebazpen honetako hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei egokitzen zaiela. Novacero, S.A.L. enpresak artxibategian gorde beharko ditu onarpen-agiriak, edo horien agiri ofizial baliokideak, nahitaezkoak direnean, bost urtean gutxienez.

g) Halaber, hondakin geldo eta geldotuen kudeaketari buruzko azaroaren 2ko 423/1994 Dekretuarekin bat etorriz, hondakin ez-arriskutsuak zabortegi baimendu batera eraman aurretik, jarraipenerako eta kontrolerako dagokion agiria bete beharko da. Agiri horiek bost urtez gorde beharko dira.

h) Erregistro bat egingo da, hondakinei buruzko datu hauek agerrarazteko: kopurua, izaera, identifikazio-kodea, jatorria, tratatzeko metodo eta tokiak, sorrera- eta lagapen-datak, biltzeko maiztasuna eta garraiatzeko modua. Urtero, Ingurumen Sailburuordetzari bidaliko zaio kontrolerako erregistro horren kopia.

i) Aipatutako f), g) (kudeatzaileak EAEn daudenean) eta h) ataletan adierazitako agiriak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira, ahal dela transakzio elektroniko bidez, IKS-L03 Sistemaren erakundeentzako bertsioa erabilita.

B.1.4.– Lurzorua babesteko baldintzak.

Urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretuan eta otsailaren 4ko 1/2005 Legean ezarritako aginduak betez lurzoruaren egoerari buruz aurkeztutako aurretiazko txostenean jasota dauden gomendioen arabera, Novacero, S.A.L. enpresak lurzorua babesteko beharrezko neurriak hartu beharko ditu, erabilitako materialen eta identifikatutako arrisku-eremuen arabera.

Horrela, produktu kimikoak metatzeko eta gasolio-andelaren eremuen lurzorua mortero iragazgaitzez babestuko da. Erretxina eta pinturen biltegiratzeak produktu kimikoen biltegiratzeari buruzko erregelamenduko ITC MIE APQ-7 eta MIE-APQ-1 jarraibide teknikoetan ezarritakoari jarraituz egingo dira. Produktu horiek erabiltzeko eremuetan edozein ihes edo jario atxikitzeko bitartekoak egongo dira.

Hondakin arriskutsuen biltegiratzeek beharrezko segurtasun-neurriak izango dituzte, lurzoruan eragin dezaketen kaltea saihesteko. Halaber, txirbila biltzeko edukiontziak zigilatu egingo dira, eta taladrina biltzeko andelera drainatzea jarriko da; bestetik, galdaketako hautsa xurgatu/iragazteko eremua pantaila bertikalen eta estalkiaren bidez zarratuko da.

Gasolio-biltegiak petrolio-instalazioei aplikatzeko araudian jasotako babes-neurriak beteko ditu, eta ezarritako azterketak eta ikuskapenak egingo zaizkio.

Hautsezko gaiak arrastatzea murriztuko da, behean adierazitako moduko sistema orokorrak erabilita:

– Hautsezko gaiak siloetan, pabiloi barruan, edo horrelakorik ezean, haizetik hobekien babestutako tokietan biltegiratu.

– Haize gogorra dabilenean hautsezko solidoak manipulatzea saihestu.

– Materialak deskargatzeko garaiera mugatu.

Lur zatian isurketa, jario edo ihesen eraginpean dauden gainazal guztiak zolatu eta iragazgaiztu egingo dira.

Produktu kimikoak biltegiratzeari buruz indarrean den araudiaren mende dauden biltegi guztiek araudi horretan ezarritako babes-neurri guztiak beteko dituzte.

Hondakinak ebazpen honetako dagozkion ataletan adierazitako jarraibideen arabera biltegiratuko dira.

B.1.5.– Zaratari buruzko baldintzak.

Jarraian adierazitako zarata-mailak ez gainditzeko neurriak instalatuko dira:

a) Jarduera maila hauetara egokituko da: kanpoaldeko zarata-maila (KZM) ezin izango da inoiz ere 70 dB (A) baino handiagoa izan, egunez zein gauez. Balio hori zarata jarraituari dagokio, inpaktuko zaratarako 3 dB(A) gehituko dira. Kanpoaldeko zarata-maila (KZM) kanpoaldeko espazio librean dagoen L_PA soinu-presioaren maila haztatuari dagokio eta soinu-iturri zehatz batek sortzen du. Vitoria-Gasteizko Zarata eta Bibrazioen Ordenantzaren II. eranskinean ezarritakoaren arabera neurtzen da.

b) Jarduera maila honetara egokituko da: inguruko industria-establezimenduetan barrualdeko zarata-maila (BZM) ezin izango da inoiz ere 55 dB (A) baino handiagoa izan, egunez zein gauez. Balio hori zarata jarraituari dagokio, inpaktuko zaratarako 3 dB (A) gehituko dira. Barrualdeko zarata-maila (BZM) esparru bateko barrualdean dagoen L_PA soinu-presioaren maila haztatuari dagokio eta eraikinean bertan edo inguruko eraikin batean kokatzen den beste esparru batean funtzionatzen duen soinu- edo bibrazio-iturri zehatz batek sortzen du. Vitoria-Gasteizko Zarata eta Bibrazioen Ordenantzaren I. eranskinean ezarritakoaren arabera neurtzen da. Hirugarren sektorerako hona hemen mugak: 40 dB(A) egunez (08:00ak eta 22:00ak bitartean) eta 35 dB(A) gauez (22:00ak eta 08:00ak bitartean).

c) Zamalanetan eta materiala kamioietan garraiatzean egiten den zaratak ez du handituko sentsibilitate akustiko handieneko guneetako zarata-maila.

C) Ingurumena zaintzeko programa.

Ingurumena zaintzeko programa sustatzaileak aurkeztutako agirietan aurreikusitakoaren eta ondoko atal hauetan ezarritakoaren arabera gauzatu beharko da:

C.1.– Isuri atmosferikoak kontrolatzea.

a) Novacero, S.A.L. enpresak isuriak kontrolatu beharko ditu, ondorengo informazioaren arabera:

Fokuaren zk.	Foku-kodea	Isurtze-fokuaren izena	Neurtu beharreko parametroak	Kontrolen maiztasuna
1	01006172-01	Alju Regina 95-F granailatzeko makina eta aire-arkuko xurgapena	Guztizko partikulak (GP)	3 urtean behin
			Nitrogeno oxidoak (NO_X)	
			Karbono monoxidoa (CO)	
2	01006172-02	2. lerroko akabera. Harrizko bizar esekia	Guztizko partikulak (GP)	5 urtean behin
3	01006172-03	3. lerroko akabera. Bizarra.	Guztizko partikulak (GP)	5 urtean behin
4	01006172-04	4. lerroko akabera. Bizarra.	Guztizko partikulak (GP)	5 urtean behin
5	01006172-05	Piezak murgilduta pintatzea	Guztizko partikulak (GP)	3 urtean behin
			Konposatu organiko hegazkorrak (KOG gisa neurtuta)	
6	01006172-06	Desmoldekatzea eta hareategia	Guztizko partikulak (GP)	3 urtean behin

Fokuaren zk.	Foku-kodea	Isurtze-fokuaren izena	Neurtu beharreko parametroak	Kontrolen maiztasuna
7	01006172-07	Galdaketa	Guztizko partikulak (GP)	Urtean behin
			Dioxinak eta furanoak (PCDD/PCDF)	Lehen urtean
			Nitrogeno oxidoak (NO_X)	Urtean behin
			Karbono monoxidoa (CO)	
			Sufre oxidoak (SO_2)	
			HCl, HF, Cl	2 urtean behin
			Metal astunak (Zn, Pb, Ni, Hg, Cu, Cr, As, Cd)	
			Konposatu organiko hegazkorrak (KOG gisa neurtuta)	
8	01006172-08	Alju Regina 95-F-1 granailatzeko makina	Guztizko partikulak (GP)	3 urtean behin
9	01006172-09	Zurrusta libreko granailatzea	Guztizko partikulak (GP)	3 urtean behin
10	01006172-10	Arrak pintatzea	Guztizko partikulak (GP)	3 urtean behin
			Konposatu organiko hegazkorrak (KOG gisa neurtuta)	
11	01006172-11	Normalizazio-tratamenduko labea	Guztizko partikulak (GP)	3 urtean behin
			Karbono monoxidoa (CO)	
			Nitrogeno oxidoak (NO_X)	
12	01006172-12	Galdaketako akaberako soldadura	Guztizko partikulak (GP)	5 urtean behin
13	01006172-13	Soplete bidezko 1-2. ebaketa	Guztizko partikulak (GP)	5 urtean behin
14	01006172-14	Soplete bidezko 3-4. ebaketa	Guztizko partikulak (GP)	5 urtean behin
15	01006172-15	Soplete bidezko 5-6. ebaketa	Guztizko partikulak (GP)	5 urtean behin

b) Aurreko atalean aipatutako neurketa guztiak kontrol erakunde baimendu batek (KEB) egin beharko ditu (ordubeteko hiru neurketa, gutxienez, zortzi orduan zehar neurtuta; eta dioxinak eta furanoak ere neurtzen direnean, 6-8 orduko neurketa bat), eta aldizkako kontrol horiei buruzko txostenak Ingurumen Sailburuordetza honek prestatutako «KEBen gutxieneko txostenean» ezarritakoaren arabera egin beharko dira. Edonola ere, isurien kontrolek eta baldintzek Sailburuordetzaren jarraibide teknikoetan ezarritako eskakizun guztiak bete beharko dituzte.

c) Arestian eskatutako parametro guztien neurketen KEB txostenak bidaliko dira. Neurketa berriak egin beharko dira, baldin eta parametroen neurketarik ez badago edo egindako neurketak ebazpen honetan ezarritako kontrol-maiztasunaren aurretik egindakoak badira. Isuri atmosferikoen ondorengo kontrolak egindako azken neurketarekiko adierazitako maiztasunarekin egingo dira.

Zenbait jardueratan disolbatzaileak erabiltzeagatik sortzen diren konposatu organiko hegazkorren isuriak murrizteko urtarrilaren 31ko 117/2003 Errege Dekretuan ezarritakoa bete beharko du Novacero, S.A.L. enpresak. Xede horretarako, Ingurumen Sailburuordetzak eskatzen duen informazioa aurkeztu behar da.

C.1.1.– Lortutako emaitzen erregistroa.

Erregistro bat egin beharko da euskarri informatikoan edo, horrelakorik ezean, paperean, agiri gaurkotuak erabilita, eta industriak atmosferan sortzen duen kutsadura saihestu eta zuzentzeari buruzko 1976ko urriaren 18ko Aginduak 33. artikuluan ezarritako edukia jaso beharko du. Erregistro horretan adieraziko dira egindako neurketen emaitzak, mantentze-lanak, garbiketa, aldizkako ikuskatzeak, matxuraren ondorioz gertatutako etenaldiak, egiaztapenak, edozein motako gorabeherak, eta abar. Agiri horiek eguneratuta egongo dira, eta ingurumen-ikuskatzaileek eskuragarri izango dituzte.

C.2.– Isuritako uraren kalitatea kontrolatzea.

a) Sustatzaileak aurkeztu dituen agirien arabera, ondorengo analisiak egingo dira:

Isurketa-puntua	Kontrolatu beharreko fluxua	Neurtu beharreko parametroak	Kontrolen maiztasuna	Kontrol mota
1	Industria-urak, sanitarioak eta euri-urak	pH-a, eroankortasuna, SE, OEK, OEB_5, olioak eta koipeak, amonioa, guztizko metalak (Fe, Cr, Cu, Mn, Pb, Ni, Zn, Cd).	Sei hilerokoa	Kanpokoa (erakunde laguntzailea)

Hozte-dorreen zirkuituen hustuketako fluxuak isuri aurretik, parametro hauek analizatuko dira: pH-a, oxigeno-eskaera kimikoa (OEK), solido esekiak (SE), guztizko fosforoa (Pguzt), konposatu organiko halogenatuak (AOX), hondar-kloro askea (Cl), kloro dioxidoa (Cl O2). Analisiak sei hilean behin egingo dira, indukzio-labeko hozte-zirkuituaren hustuketan sortutako fluxua isuri aurretik.

b) Kanpoan egiten den kontrol bakoitza, bai laginak hartzea bai ondorengo analisia, «erakunde laguntzaile» batek egin eta egiaztatuko du, eta organo eskudunak zehaztutako parametroak hartuko dira kontuan. Sustatzaileak isurketa-puntu bakoitzeko lagin hartu berri baten analisia aurkeztu beharko du gutxienez; lagina 24 orduko ur-emariarekiko proportzionala izango da, edo bestela, lagin puntual esanguratsua.

Isurketen kontrolen emaitzak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira laginak hartzen direnetik hilabete bateko (1) epean.

c) Laginketak kutsatzaile gehien sortzen den aldietan egingo dira.

d) Isurketak baimenean jarritako baldintza guztiak betetzen dituela ulertuko da, organo eskudunak zehazten dituen parametro guztiek ezarritako mugak betetzen badituzte.

e) Isurketan lehen aipatutako maiatzaren 23ko 606/2003 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarriak aipatzen dituen gai arriskutsuak dauden ala ez dioen adierazpen bat igorriko du titularrak urtero. Adierazpen horretan ekoizte-prozesuan manipulatu diren substantzia guztiak adierazi behar dira, nahiz eta isurketan ez detektatu.

C.3.– Jardueraren adierazleak kontrolatzea.

Sustatzaileak jardueraren gaineko ondorengo parametro adierazleen jarraipena egingo du urtero, ingurumenean duten eragina aztertzeko:

Ingurumenaren gaia	Enpresari eskatutako abiaburuko datuak	Unitatea	Adierazlea	Unitatea
Ekoizpena	Metal likidoa	t	Metal likidoa	t
Lehengai eta osagarrien kontsumoa	Lehengaien guztizko kontsumoa: – Txatarrak – Lingoteak – Ferroaleazioak	t	Lehengaien guztizko kontsumoa: – Txatarrak – Lingoteak – Ferroaleazioak	t
Energia kontsumoa	Gas naturalaren kontsumoa	m^3	Gas naturalaren kontsumoa energiaren guztizko kontsumoaren aurrean	Kwh/Kwh (%)
	Elektrizitate-kontsumoa	kWh	Elektrizitate-kontsumoa energiaren guztizko kontsumoaren aurrean	kWh/kWh (%)

Ingurumenaren gaia	Enpresari eskatutako abiaburuko datuak	Unitatea	Adierazlea	Unitatea
Ur kontsumoa	Ur-kontsumoa	m^3	Ur-kontsumoa	m^3
Uretara egindako isurketak	Industria-isurketak/ Helmuga	m^3	Industria-isurketak/ Helmuga	m^3
	Euri-uren isurketa/Helmuga	m^3	Euri-uren isurketa/Helmuga	m^3
	Guztizko solido esekiak (GSE) (max, min, batez b., lagin-zk.)	mg/l	Guztizko solido esekiak (GSE)	mg/l
	Hidrokarburoak (max, min, batez b., lagin-zk.)	mg/l	Hidrokarburoak	mg/l
Isuri atmosferikoak	Guztizko partikulen isuria (max, min, batez bestekoa, lagin zk.) / parametro honen prozesu nagusiari lotutako foku kontrolatu bakoitzeko	mg/Nm^3	Partikula solidoen isuria	mg/Nm^3
	Guztizko partikulen isuria	Kg	Partikula solidoen isuria/metal likidoa	Kg/t
Hondakinak	Arazketa-sistemetan bildutako xehekien kantitatea	t	Arazketa-sistemetan bildutako xehekien kantitatea / metal likidoa	t/t
	Sortutako hondakin arriskutsuen guztizko kantitatea	t	Sortutako hondakin arriskutsuen guztizko kantitatea	t
	1.		Sortutako hondakin arriskutsuen guztizko kantitatea/metal likidoa	t/t
	Hondakin arriskutsu baliotuak	t	Hondakin arriskutsu baliotuak / Sortutako hondakin arriskutsuak	t/t (%)
	Sortutako hondakin ez-arriskutsuen guztizko kantitatea	t	Sortutako hondakin ez-arriskutsuen guztizko kantitatea	t
	1.		Sortutako hondakin ez-arriskutsuen guztizko kopurua/metal likidoa	t/t
	Hondakin ez-arriskutsu baliotuak	t	Hondakin ez-arriskutsu baliotuak / Sortutako hondakin ez-arriskutsuak (konposizio-hondarrak, …)	t/t (%)
			Sortutako hondakin arriskutsuen guztizko kopurua / guztizko hondakinak	t/t (%)
Lurzoruaren kutsadura	Ustekabeko isurketekin lotutako gorabehera kopurua (ingurune hartzailea zehaztu: airea, ura, lurzorua)	Kopurua / urte	Ustekabeko isurketekin lotutako gorabehera kop.	Kopurua / urte
IKS	Ezarri eta egiaztatutako kudeaketa-sistemak (zehaztu)	Bai/Ez Zein/urtea	Ekoscan/ Urtea eta/edo ISO14001/ Urtea eta/edo EMAS/ Urtea	Bai/Ez Zein/ urtea

C.4.– Zarataren kontrola.

Jarduera garatzen den lur zatiko kanpoko baldintza akustikoak hiru urtean behin kontrolatuko dira, batez ere zarata etxe barruetara sartzeko arriskurik handiena dagoen aldeetan. Kontroleko lehen urtean izandako emaitzen arabera erabakiko da aurrerantzean neurketak urtero egin ala ez.

Sustatzaileak neurketa-proposamen zehatz bat landu beharko du eta neurketa-metodo zehatzak adierazi bertan. Ebazpen honen C.6 atalak aipatzen duen ingurumena zaintzeko programaren agiri bateginari erantsiko zaio proposamena.

C.5.– Emaitzak kontrolatu eta bidaltzea.

Ingurumena zaintzeko programa osatzen duten analisi eta txostenen emaitzak behar bezala erregistratuko dira, eta Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira. Ingurumena zaintzeko programaren emaitzak urtean behin bidaliko dira, beti martxoaren 30a baino lehen, ingurumenaren gaietan aditua den erakunde aske batek egindako txostenarekin batera. Txosten horretan adieraziko dira neurri zuzentzaileen funtzionamendua, eta prozesuak eta ingurunearen kalitatea kontrolatzeko

sistemak. Emaitzen analisia ere adieraziko da, eta bereziki aipatuko dira aldi horretan gertatu diren gorabehera garrantzitsuenak, horien ustezko arrazoiak eta konponbideak, eta baita laginketen xehetasunak ere, aurretik zehaztu ez baldin badira.

C.6.– Ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina.

Sustatzaileak ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina landu beharko du, aurkeztu dituen agirietan eta ebazpen honetan proposatutako betebeharrak bilduz. Programa horrek hauek zehaztu beharko ditu: kontrolatu beharreko parametroak, parametro bakoitzerako erreferentzia-mailak, analisi edo neurketen maiztasuna, laginketak eta analisiak egiteko teknikak, eta laginak hartzeko puntuen kokapen xehatua. Halaber, dagokion aurrekontua ere barne hartu beharko du.

Ingurumena zaintzeko programan jardueraren ohiko adierazleak eta horiek analizatzeko sistematika sartuko dira, ingurumen-hobekuntza ziurtatzeko enpresak berak ezarritako neurri eta mekanismoen eraginkortasuna egiaztatzeko (ingurumen-adierazleak).

D) Ezohiko egoeretarako prebentziozko neurriak eta jardunerako baldintzak.

D.1.– Fabrika gelditzeko eta abiarazteko eragiketak eta mantentze-lanetarako programatutako eragiketak.

Programatutako urteko mantentze-lanei dagokienez, isurien eta sortuko diren hondakinen balioespena egin beharko du enpresak, eta dagokionean, horiek kudeatzeko eta tratatzeko proposamena ere bai.

D.2.– Jarduera uztea.

Jarduera lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeari buruzko otsailaren 4ko 1/2005 Legearen aplikazio-eremuan (271 epigrafea «Burdinazko, altzairuzko eta ferroaleaziozko oinarrizko produktuen fabrikazioa (IAEE)») eta lurzorua kutsatu dezaketen jardueren zerrenda eta lurzoru kutsatu izendatzeko irizpide eta estandarrak ezartzen dituen urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretuaren aplikazio-eremuan dagoenez, Novacero, S.A.L. enpresak lurzoruaren kalitatearen adierazpenerako prozedurari ekin beharko dio jarduera amaitu eta gehienez ere bi hilabeteko epean, otsailaren 4ko 1/2005 Legearen 17.4. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

D.3.– Ezohiko jardunean aplikatzeko prebentziozko neurriak eta jarduketak.

Aurkeztutako agirietan egindako proposamenean ezohiko egoeretan aplikatu beharreko prebentziozko neurriak eta jardunerako baldintzak zehazten dira. Horiez gain, ondorengo ataletan aipatzen diren baldintzak bete behar dira:

a) Prebentziozko mantentze-lanen eskuliburua eduki beharko da instalazioen egoera ona bermatzeko, batez ere ustekabeko jario edo ihesak daudenean kutsadura ekiditeko eskuragarri dauden baliabideei eta ezarritako segurtasun-neurriei dagokienez. Ihesak daudenean lurzorua babesteko hartu beharreko neurriak zehaztuko dira, eta zehatz adieraziko da hauei dagokien guztia: eraikuntzako materialak (iragazgaiztea), biltegiratzeko neurri bereziak (gai arriskutsuak), egon daitezkeen ihesak antzemateko neurriak edo gainbetetzerako alarma-sistemak, lantegiko kolektore-sarea zaindu eta garbitzekoak (sistematikoki garbitzeko beharra, maiztasuna, garbiketa mota), eta lurzoruaren gaineko jarioak biltzeko sistemak.

b) Aurreko paragrafoan adierazitako eskuliburuak ikuskapen eta kontrolerako programa jaso beharko du, hauek bilduko dituena: estankotasun-probak, mailen eta adierazleen egoera, balbulak, presioa arintzeko sistema, hormen egoera eta lodieren neurketa, andelen barnealdearen begi-bidezko ikuskapenak (hormena eta estaldurena) eta kubetetako detekzio-sistemen aldizkako kontrol sistematikoa, lurzorua kutsa dezakeen edozein egoerari aurrea hartzeko.

c) Goian aipatutako prebentziozko mantentze-lanen eskuliburuan, atmosferaren kutsadurari aurre hartzeko eta zuzentzeko (arazketa, minimizazioa, eta abar) sistemen egoera ona gehitu behar dira.

d) Era berean, erregistro bat eduki behar da, eta bertan, aldizka egindako mantentze-lanen berri eman behar da, baita antzemandako gorabeherena ere.

e) Besteak beste, olioak, taladrinak, erregaiak, erretxinak, pinturak, disolbatzaileak, eta abar, eta orokorrean, instalazioan sortutako hondakinak maneiatzeak lurzorua eta ura kutsa ditzake. Beraz, isurketak, jarioak edo ihesak gertatzeko arriskua izan dezaketen lur zatien azalera guztiak iragazgaiztuko dira.

f) Prozesurako behar diren lehengaiak, erregaiak eta produktuak ingurunean ez sakabanatzeko moduan biltegiratuko dira.

g) Hauts-produktuak biltegiratzeko, iragazkiak dituzten silo itxiak egongo dira.

h) Segurtasun-tarteei eta babes-neurriei dagokienez, egiaztatu egin beharko da biltegiratzeko instalazio horiek bete egiten dituztela produktu kimikoak biltegiratzeari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako betebeharrak. Egiaztapen hori egiteko, Ingurumen Sailburuordetza honi aurkeztuko zaizkio eskumena duten erakundeek emandako egiaztagiriak.

i) Larrialdi-egoera sortzen denean, berehala eta eraginkortasunez jarduteko behar beste material eduki behar da: berriro ontziratzeko erreserbako edukiontziak, beharrezkoa izanez gero; gerta daitezkeen jarioei eusteko produktu xurgatzaile selektiboak, segurtasuneko edukiontziak, hesiak eta kaltetutako inguruneak isolatzeko seinaleztapen-elementuak eta babes pertsonalerako ekipamendu bereziak.

j) Hidrokarburo-bereizgailuak aldian-aldian ikuskatuko dira, hondakinak pilatu ez daitezen; dekantagailuetan eta bereizgailuetan metatutako flotatzaileak eta lohiak aldian-aldian kendu behar dira. Hondakin horiek kudeatzaile baimendu bati emango zaizkio.

k) Bereizgailuan metatutako lohiak, olioak eta koipeak aldian-aldian kendu behar ditu kudeatzaile baimendu batek. Isurketaren kalitateari eragiteko moduko mailetan metatzea saihestuko du.

l) Hezean iragazteko hareategiko sistemaren dekantagailuan pilatutako hondakin solidoak eta lohiak beharrezko maiztasunaz atera beharko dira instalazioa behar bezala ibil dadin. Behar izanez gero, andel iragazgaitzetan eta hondoan hustubiderik ez dutenetan biltegiratuko dira.

m) Inoiz ez dira pilatuko euri-uren jariatzearen ondorioz ibilgu publikoko ura kutsatzeko arriskua egon daitekeen eremuetan.

n) Larrialdi-egoeretan, babes zibileko legeriari helduko zaio, eta bertan ezarritako betekizun guzti-guztiak bete beharko dira.

o) Titularrak behar diren bitartekoak izango ditu arazketa-instalazioak zuzen ustiatzeko eta ustekabeko isurketak prebenitzeko hartu diren segurtasun-neurriak abian izateko.

p) Ingurunearen edo jardueraren kontrolaren gainean kalteak eragin ditzakeen gorabehera edo ezohiko gertaeraren baten aurrean (besteak beste, ihesak, jarioak, lurzorua edo urak kutsa ditzaketen hondakin, erregai edo substantzien isurketa garrantzitsuak; suteak), gorabehera edo ezohiko gertaera horren berri eman beharko du Ingurumen Sailburuordetzan.

q) Gertakari edo arazo larriren bat edo ustekabeko isurketa edo isuriren bat egonez gero, SOS Deiak eta Udalari ere jakinarazi beharko zaie berehala. Ondoren, eta gehienez ere 48 orduko epean, ezbeharrari buruzko txosten xehatua bidali beharko da Ingurumen Sailburuordetzara, eta bertan, datu hauek agertuko dira gutxienez:

– Gertakari mota.

– Gertakaria non, zergatik eta zer ordutan gertatu den.

– Iraupena.

– Ustekabeko isurketa bada, emaria eta isuritako gaiak.

– Mugak gaindituz gero, isuriei buruzko datuak.

– Eragindako kalteen balioespena.

– Hartutako neurri zuzentzaileak.

– Prebentziozko neurriak berriro gerta ez dadin.

– Prebentziozko neurriak eraginkortasunez aplikatzeko aurreikusitako epeak.

r) Instalazioek suteen aurkako babesari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako betekizunak betetzen dituztela egiaztatu beharko da. Egiaztapen hori egiteko, Ingurumen Sailburuordetza honi aurkeztuko zaizkio eskumena duten erakundeek emandako egiaztagiriak.

E) Baldin eta arautegi berria indarrean sartzeak, edo barneratzen diren sistemen egitura eta funtzionamenduari buruzko ezagutza berri esanguratsuetara egokitu beharrak hori egitea gomendatzen badute, neurri babesle zein zuzentzaileak eta ingurumena zaintzeko programa aldarazi ahal izango dira, bai neurtu behar diren parametroen kasuan, bai neurketaren aldizkakotasuna eta aipatutako parametroek hartu behar duten tarteari dagozkion mugen kasuan. Era berean, neurri babesle zein zuzentzaileak eta ingurumena zaintzeko programa jardueraren sustatzaileak hala eskatuta edo ofizioz aldaraz daitezke, ingurumena zaintzeko programan lortutako emaitzetan oinarrituta.

F) Urtean behin Novacero, S.A.L. enpresak Ingurumen Sailburuordetzari jakinaraziko dizkio atmosferara eta uretara egindako isuriei eta sortu dituen hondakin guztiei buruzko datuak, E-PRTR-Euskadi, botatako eta eskualdatutako kutsagarrien Europako Inbentarioa landu eta eguneratzeko, apirilaren 20ko 508/2007 Errege Dekretuaren, E-PRTR Erregelamenduko eta ingurumeneko baimen bateratuetako isurien gaineko informazioa ematea arautzen duenari jarraituz.

Informazio hori ekitaldi horren hurrengo martxoaren 31 baino lehen bidali beharko da. Informazioa Ingurumenari buruzko Adierazpenaren (IA) bidez gauzatuko da, hori baita kanpoko erakundeek eta Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak ingurumen-informazioa batak besteari elektronikoki emateko ardatza. Informazio-trukaketa horren funtsa Ingurumenari buruzko Adierazpenari (IA) dagozkion ingurumeneko datu teknikoak eta prozedurakoak sartzean datza, IKS-L03 Sistemako erakundeentzako bertsioaren bidez (www-eper-euskadi.net web-orrian eskuragarri): Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saileko Ingurumen-informazioa Kudeatzeko Sistema. Datu horiek guztiek Ingurumenean Eragina duten Jardueren Euskal Autonomia Erkidegoko Erregistroa osatuko dute, Europako Ingurumen Agentziaren Erregistrora (Europako E-PRTR Erregistroa) egiten diren informazio-bidalketen oinarri dena.

Halaber, ebazpen honetan aurreikusitako gainerako informazio-trukeak aipatutako Ingurumenari buruzko Adierazpenaren bidez gauzatuko dira, ahal izanez gero.

Informazio hori agerikoa izango da, uztailaren 18ko 27/2006 Legearen xedapenekin bat etorriz. Lege horren bidez informazioa eskuragarri izateko, herritarren partaidetzarako eta ingurumen-gaietan justizia eskura izateko eskubideak arautzen dira (2003/4/EE eta 2003/2005/EE Zuzentarauak jasotzen ditu). Horrez gain, uneoro bermatu beharko da datu pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betetzen dela.

G) 2007ko apirilaren 21eko 509/2007 Errege Dekretuaren 4. artikuluko 3. atalari jarraituz, instalazioaren titularrek agintaritzari jakinarazi beharko diote instalazio horietan erabiltzen eta ekoizten diren substantziek, 1907/2006 EE Erregelamenduan erregistratu eta ebaluatzeko aurreikusitako prozesuan identifikatu direnek, giza osasunerako eta ingurumenerako izan dezaketen arriskua.

H) Ingurumeneko baimen bateratu honen mendeko instalazioan egindako aldaketek bat etorri beharko dute kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legeak 10.3 artikuluan ezarritako komunikazio-erregimenarekin. Hori horrela, ingurumeneko beste baimen bateratu bat beharko da aldaketak funtsezkoak direnean.

Hirugarrena.– Ebazpen hau eraginkorra izan dadin, aurretik Ingurumen Sailburuordetzari agiri bidez egiaztatu beharko zaio ebazpen honetako bigarren ataleko puntu hauetan ezarritako baldintzak betetzen direla:

B.1.1.2 (egiaztatu egin beharko da «Desmoldekatzea eta hareategia» 6. fokuak, «Alju Regina 95-F-1 granailatzeko makina» 8. fokuak eta «Zurrusta libreko granailatzeko makina» 9. fokuak aurreko taulan adierazi den bezala egokitu direla benetan, iragazketa-sistema berriak ezarritakoan; «Tratamendu termikoko labea» 11. fokurako, tximiniaren garaiera egiaztatuko da; 11, 13, 14 eta 15. fokuetarako tximiniaren garaierari eta diametroari buruzko datuak, eta oxigeno eta gasezko soplete bidez ebakitzeko hiru fokuen UTM koordenatuak); B.1.2.2 (isurketen analisi osoa, erakunde egiaztatuak egina); B.1.2.3 (arazketa- eta kontrol-instalazioak muga baimenduetara egokitzea); B.1.3.1 (hondakin hauen sortutako urteko kantitateak: ontziak, metalezkoak eta plastikozkoak bereizita; «pintura-hondarrak», «disolbatzaile organiko ez-halogenatua», «ikatz aktibozko iragazkiak», «ekipo elektriko eta elektronikoak», «II. taldeko hondakin sanitarioak», «ebakitzaile eta zorrotzak». Hondakin hauen kode berriak: «Disolbatzaile organiko ez-halogenatua», «ekipo elektriko eta elektronikoak», «labeen xurgapeneko hautsa»; B.1.3.1.f) eta B.1.3.2.f) (hondakin arriskutsuak eta ez-arriskutsuak onartzeko agiriak. «Labeen xurgapeneko hautsa», «disolbatzaile organiko ez-halogenatua», «ekipo elektriko eta elektronikoak» hondakinak onartzeko agiriak baliotzeko R kodea izan behar du; B.1.3.1.o) eta B.1.3.2.h) (hondakin arriskutsuak eta ez-arriskutsuak erregistratzeko ereduak); B.1.3.2.a) (berdez moldekatzeko hareak eta hareategiko jalkin xeheak baliotzeko proposamena); B.1.3.2.b) (EHZen ispilu-sarrera duten hondakinen karakterizazioa); B.1.3.2.c) (baliotu daitezkeen hondakin ez-arriskutsuak bereiztea); B.1.3.2 (hondakin hauen EHZ kodea: Molde eta ar hautsiak, baheketako hondakinak (harea berreskuratzea, desondartzearen hondakinak), ebaketako plakatxo eta tresna erabiliak, altzairu-txatarra, papera eta kartoia, zura. «Hezean iragazteko hareategiko sisteman (hidrozikloia) dekantatutako lohiak» hondakina badagoen arrazoitu behar da: horren EHZ kodea, kudeaketa-modua eta urtean kudeatutako kantitatea); B.1.4 (lurzoruaren kalitatea babesteko neurriak); C.1.c) (isuri atmosferikoen neurketak, KEB txostenak); C.1 (KOH isuriei buruz 117/2003 EDak eskatutako informazioa); C.1.1 (isuri atmosferikoak erregistratzeko eredua); C.6 (ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina); D.1 (geldialdi programatuetan sortutako isuri eta hondakinen balioespena); D.3.a) (mantentze-lanen eskuliburua); D.3.h) (biltegiratze-ziurtagirien egiaztapena); D.3.i) (larrialdietarako materialen eta babes pertsonalerako ekipoen zerrenda); D.3.r) (suteen kontrako araudia betetzearen ziurtagiria).

Halaber, baimen hau indarrean jarri aurretik, ingurumen-organo honi atxikitako zerbitzu teknikoen ikuskapen-bisitan egiaztatu beharko da instalazioak aurkeztutako proiektuaren arabera eta

ebazpen honetan ezarritakoarekin bat etorrita eraiki eta hornitu direla. Horretarako, aipatutako ikuskapen-bisitaren aurretik, sustatzaileak Ingurumen Sailburuordetza honetan aurkeztu beharko du baldintza horiek betetzen direla egiaztatzen duen agiria, teknikari aditu batek eginda.

Atal honetako baldintza guztiak betetzeko 6 hilabeteko epea ezarri da, ingurumeneko baimen bateratua eraginkorra dela adierazteko Ingurumen Sailburuordetzak emandako ebazpen hau jakinarazten den biharamunetik kontatzen hasita.

Adierazitako baldintzak betetzen direla ziurtatzean, ebazpena emango da eta, horren bitartez, ingurumeneko baimen bateratua eraginkortzat aitortuko da.

Laugarrena.– Ingurumeneko baimen bateratu hau 8 urteko epean egongo da indarrean, aurreko atalean ezarritakoaren arabera ondorioak dauzkan egunetik kontatzen hasita. Epe hori igarota, baimena berritu egin beharko da eta, hala badagokio, jarraian datozen aldietarako eguneratu.

Ingurumeneko baimen bateratua amaitu baino hamar hilabete lehenago, titularrak baimena berritzeko eskaera egin beharko du, uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 25. artikuluan xedatutakoa betez.

Bosgarrena.– Edonola ere, ingurumeneko baimen bateratua ofizioz aldatu ahal izango da uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 26. artikuluan ezarritako kasuak aintzat hartuta.

Seigarrena.– Novacero, S.A.L. enpresak ebazpen honen xede den altzairu moldekatuzko piezak galdatzeko eta mekanizatzeko jardueran titulartasun-aldaketarik eginez gero, aldaketa hori jakinarazi beharko du, Ingurumen Sailburuordetzak onar dezan.

Zazpigarrena.– Baimen honek balioa galduko du kausa hauek gertatzen direnean:

– Epearen barruan ez egiaztatzea ebazpen honetako hirugarren atalean ingurumeneko baimen bateratuak ondorioak izan ditzan ezarritako baldintzak betetzen direla, interesdunak behar bezala justifikatuz epea luzatzeko eskatzen ez badu.

– Novacero, S.A.L. enpresaren nortasun juridikoa bukatzea, indarrean dagoen araudian ezarritako kasuetan.

– Baimena indarrean jartzen dela adierazten duen ebazpenean xedatutakoak.

Zortzigarrena.– Ebazpen honen edukia jakinaraztea Novacero, S.A.L. enpresari, ingurumeneko baimen bateratua emateko prozeduran parte hartu duten erakundeei, eta gainerako interesdunei.

Bederatzigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea.

Hamargarrena.– Ebazpen honek ez du agortzen administrazio-bidea; horrenbestez, gora jotzeko errekurtsoa aurkez daiteke Ingurumen eta Lurralde Antolamendu sailburuaren aurrean, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunean kontatzen hasita, hori guztia Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. artikuluarekin eta ondorengoekin bat etorriz (urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatu zuen lege hori).

Vitoria-Gasteiz, 2008ko apirilaren 30a.

Ingurumeneko sailburuordea,
IBON GALARRAGA GALLASTEGUI.

I. ERANSKINA

ALEGAZIOEN TXOSTENA

Novacero, S.A.L. enpresak Vitoria-Gasteizko udalerrian (Araba) altzairu moldekatuzko piezak galdatzeko eta mekanizatzeko sustatutako jarduerari ingurumeneko baimen bateratua emateko prozeduran adostutako informazio publikoko izapidean, alegazio-idazki bat jaso da enpresa horrek sortutako isuri atmosferikoen ondorioz sortzen diren eragozpenei buruz.

Gogoetak:

Gogoan izan behar da uztailaren 1eko 16/2002 Legearen xedea atmosferaren, uraren eta lurzoruaren kutsadura saihestea edo, hori ezinezkoa denean, kutsadura hori gutxitu eta kontrolatzea dela, ingurumen osoaren babes-maila altua helburutzat harturik, kutsadura prebenitu eta kontrolatzeko sistema integratu bat ezarriz.

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 9. artikuluak ezartzen duena betez, ingurumeneko baimen bateratua behar da 1. eranskinean aipatzen diren jardueraren bat garatzen duten instalazioak eraiki, muntatu, ustiatu, lekuz aldatu nahiz funtsezko beste aldaketaren bat egiteko.

11. artikuluan xedatutakoaren arabera, ingurumeneko baimen honen oinarrizko helburua baldintzak ezartzea da, araua aplikatzeko den instalazio guztietan betetzen dela bermatzeko; horretarako, baimena ematen parte hartuko duten Herri Administrazio guztien artean koordinatuko den prozedura bat erabili nahi da, izapideak erraztu eta partikularrek ordaindu beharreko kargak gutxitzearren. Era berean, indarrean dagoen legerian aurreikusitako ingurumen-baimen guztiak administrazio-egintza bakar batean bildu nahi dira.

Arlo horretan, proiektu osoaren ebaluazioa egin ondoren, ingurumeneko baimen bateratua emateko eskumena duen organoak ebazpen-proposamena egin behar duela ezartzen da. Legearen 22. artikuluak ingurumeneko baimen bateratuari dagokionez ezarritakoarekin bat etorriz, ebazpen-proposamen horrek egindako txosten lotesleetatik ateratako baldintzak jaso beharko ditu. Ildo horretan, 22. artikulu horrek ezartzen duenez, eman beharreko baimenak, besteak beste, alderdi hauek hartu beharko ditu kontuan:

a) Teknika erabilgarri onenetan oinarritutako isurtzeko muga-balioak.

b) Lurzoruaren eta lurpeko uren babesa bermatzeko baldintzak, hala dagokionean.

c) Instalazioan sortutako hondakinak kudeatzeko erabiliko diren prozedurak eta metodoak.

d) Urrutiko edo mugaz gaindiko kutsadura gutxitzeko baldintzak, hala dagokionean.

e) Isuri eta hondakin mota guztiak tratatzeko eta kontrolatzeko sistemak eta prozedurak, hauek zehaztuta: neurketak egiteko metodologia, maiztasuna eta ebaluatzeko prozedurak.

f) Ingurumenari eragin diezaioketen eta ohikoak ez diren egoeretan (martxan jartzea, ihesak, funtzionamendu-akatsak, aldian aldiko geldialdiak edo behin betiko itxiera) ustiapenaren baldintzen inguruko neurriak.

g) Aplikatzekoa den arloko legeriak ezarritako bestelako neurri edo baldintzak.

Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruz indarrean dagoen araudiak eta Novacero, S.A.L. enpresak sustatutako instalazioari aplikatzekoa den ingurumeneko araudi sektorialak ezarritakoa betez, ingurumen-organoak instalazio osoaren balorazio orokorra egin du, eta aplikatzekoa den araudi sektorialak jasotzen dituen aginduak kontuan hartu ditu, hori zuzen burutzeko hartu behar diren neurriak zehazteko.

Horrela, ingurumeneko baimen bateratu honetan enpresari ezarri behar zaizkion baldintza eta eskakizunak, organo honek enpresari ezarri beharrekoak direla iritzitakoak, jaso dira, kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legeak adierazitako helburuak bete daitezen, atmosferaren, uraren eta lurzoruaren kutsadura saihesteari, edo hori ezinezkoa bada, kutsadura hori gutxitu eta kontrolatzeari dagokionez.

Zehazki, B.1.1 atalean airearen kalitatea babesteari buruzko baldintza hauek jaso dira:

Novacero, S.A.L. enpresaren lantegia ustiatzean egingo diren isuri atmosferikoek ez dituzte ebazpen honen B.1.1.3 atalean ezarritako isurtzeko muga-balioak gainditukо.

Prozesuan zehar atmosferara isurtzen den gai kutsatzaile oro bildu eta ihesbide egokienean zehar kanpora bideratuko da, behar denean, gai kutsatzaileen ezaugarrien arabera diseinatutako gasak arazteko sistema batetik igaro ondoren.

Gainera, neurri egokiak hartuko dira ustekabeko isuririk ez egiteko, eta egiten direnak giza osasunerako eta gizartearen segurtasunerako arriskutsuak izan ez daitezen. Gas-efluenteak tratatzeko instalazioak behar bezala ustiatu eta zainduko dira, efluenteen tenperatura- eta konposizio-aldakuntzei modu eraginkorrean aurre egiteko. Era berean, ahalik eta gehien murriztuko dira instalazio horiek gaizki dabiltzan edo geldirik dauden aldiak.

Isuri atmosferikoen kontrolei dagokienez, C.1 atalak horien maiztasuna jasotzen du, eta adierazten du aurreko atalean aipatutako neurketa guztiak kontrol erakunde baimendu batek (KEB) egin beharko dituela (ordubeteko hiru neurketa, gutxienez, zortzi orduan zehar neurtuta; eta dioxinak eta furanoak ere neurtzen direnean, 6-8 orduko neurketa bat), eta aldizkako kontrol horiei buruzko txostenak Ingurumen Sailburuordetza honek prestatutako «KEBen gutxieneko txostenean» ezarritakoaren arabera egin beharko direla. Edonola ere, isurien kontrolek eta baldintzek Sailburuordetzaren jarraibide teknikoetan ezarritako eskakizun guztiak bete beharko dituzte.

Zenbait jardueratan disolbatzaileak erabiltzeagatik sortzen diren konposatu organiko hegazkorren isurtzeak murrizteko urtarrilaren 31ko 117/2003 Errege Dekretuan ezarritakoa bete beharko du Novacero, S.A.L. enpresak. Xede horretarako, Ingurumen Sailburuordetzak eskatzen duen informazioa aurkeztu behar da.

Erregistro bat egin beharko da euskarri informatikoan edo, horrelakorik ezean, paperean, agiri gaurkotuak erabilita, eta industriak atmosferan sortzen duen kutsadura saihestu eta zuzentzeari buruzko 1976ko urriaren 18ko Aginduak 33. artikuluan ezarritako edukia jaso beharko du. Erregistro horretan adieraziko dira egindako neurketen emaitzak, mantentze-lanak, garbiketa, aldizkako ikuskatzeak, matxuraren ondorioz gertatutako etenaldiak, egiaztapenak, edozein motako gorabeherak, eta abar. Agiri horiek eguneratuta egongo dira, eta ingurumen-ikuskatzaileek eskuragarri izango dituzte.